



Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa langileen greba deialdia dela eta STEILAS sindikatuaren oharra

Azken egunetan Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa langileen greba deialdiaren inguruan entzun eta irakurri dugunaren harira, **STEILAS** sindikatuak hainbat zehaztapen egin nahi ditu ohar honen bitartez.

Jakina denez, abenduaren 23tik urtarrilaren 24ra bitartean LAB sindikatuak Haurreskolak Partzuergoko kudeaketa langileak hilabete bateko grebara deitu zituen. Abenduaren 17an kaleratutako ohar batean, abenduaren 12an aldebakarrez erregistratu zuten greba deialdira batzea eskatu zigun **STEILAS** eta ELA sindikatuak.

Ezustean jasotako deialdi horren ondorioz, abenduaren 18an kudeaketa langileekin asanbladan bildu ostean, **STEILAS** eta ELA sindikatuok mobilizazio deialdi horrekin bat ez egitea erabaki genuen. Izan ere, bilera horretan kudeaketa langileen gehiengo zabalak bapateko deialdiagatik beraien haserrea adierazi eta gero, greba ez zutela babestuko jakinarazi ziguten. Langileen babes falta eta ezinegon horren ondorioz hartu genuen beraien iritzia errespetatzeko erabakia.

Gogoratu behar dugu kudeaketa langile horiek jada 2018ko azaroan 3 sindikatuarekin jarri zirela kontaktuan beraien lan baldintzen alde lan egiteko eta mobilizazioak eta elkarlana eskatzeko. **STEILAS** sindikatuak eskaera hori hasieratik babestu zuen arren, LAB sindikatuak ez zuen langileen babes eta laguntza eskaerarekin bat egin. Ikasturte osoa iraun zuen mobilizazio eta negoziazio dinamika gauzatu eta gero, 2019ko irailean ere 5 eguneko greba egin zuten, ikasturte hasiera betean. Beraz, borroka aspaldi hasi zuten kudeaketa langileek, eta ez orain dela 15 egun.

Orain, berriz, LAB sindikatuak kudeaketa langileen babesik ez duen aldebakarreko greba deialdi batekin bat ez egitea aurpegiratzen dio **STEILAS** sindikatuari. Gure helburua greba deialdia desitxuratzea dela esatera ere iritsi dira, gure elkarlana faltan botatzen omen dutela. Esan bezala, guk 2018ko azaroan egin genuen bat kudeaketa langileen laguntza eta babes eskaerarekin. Orduan hauek izan ziren babes faltan bota zutenak. Baina ez gurea.

Bada, hilabeteko greba deialdi honek izan dezakeen jarraipen mugatua ez da **STEILAS** sindikatuaren babes faltarengatik izango, langileen babes faltagatik eta haserrearengatik baizik. Norberaren ekintzek desitxuratzen dute norberaren jarduna, ez besteenek. Bakoitzak bere erabakien ondorioen ardurak bere gain hartzea ondo legoke, ardura besteei leporatu beharrean.

Lerro hauen bitartez LAB sindikatuari eskatu nahi diogu interes propioen gainetik adostasunerako eta elkarlanerako prestutasuna erakustea, urte beteko langileen borrokari esker orain arte egindako lana aitortzea eta gainontzeko sindikatuak errespetuz tratatzea.

Bukatzeko, esan nahi dugu **STEILAS** sindikatua beti egongo dela Haurreskolak Partzuergoko langile guztien eskubideen aldeko borrokan eta sindikatuen arteko elkarlana bilatzen. Egunero ari gara horren alde lanean, eta soberan erakusten dugu gure jardunarekin.

steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus